



Donostiako
Musika Hamabostaldia
Quincena Musical
de San Sebastián

Centro Kursaal Elkargunea
Zurriola 1
20002 Donostia / San Sebastián
Tel.: 943 00 31 70
quincenamusical@donostia.eus
www.quincenamusical.eus

Sarrerak / Entradas
Taquillas / Leihatilak:
Kursaal
Teatro Victoria Eugenia
Antzokia
www.quincenamusical.eus

Informazio gehiago:
Más información:



Datozen kontzertuak / Próximos conciertos:

25/8 20:00 “Folia” Compagnie Käfig	30/8 20:00 Orchestre Philharmonique de Radio France
27/8 20:00 Orchestra Filarmonica della Scala de Milán	



Batzen gaituen musika




85 musika
hamabostaldia quincena
musical

donostia
san sebastián
abuztua 1–30
agosto 2024



23/8
Euskadiko
Orkestra
Orfeón
Donostiarra



“Vom Herzen, Moege es wieder zum Herzen gehen”, “Bihotzetik, bihotzera” dio L. van Beethovenen lumaren grafiak *Missa Solemnisen* eskuizkribuaren hasieran, norberaren bihotzean taupada erlijiosoen geografia bat marrazteko xedez. Bachen *Meza Si minorrean* eta Mozarten *Meza handia Do minorrean* nahiz *Requiem*a aurrekarien oihartzunak artean itzaltzeke zirela, *Meza Do maiorrean* konposatu ostean idatzi zuen Beethovenek lan hau, genero honetako bigarrena. Nolanahi ere, entzungai dugunak liturgiaren neurriak eta kanonak gainditu zituen, handitasuna hauspotzeari dagokionez.

Bizitzaren eta konposizio-bidearen bukaerari, erabat gortuta, ekin zion konpositorak *Missa Solemnis Op.123* obra izango zena idazteari. Azken etapan, etapa zinez sakon eta emankor batean, agertu zituen konposizio-baliabideak distiratsuen; hain zuzen, 1818-1823ko tartean, *Bederatzigarren Sinfoniaren* kronologiarekin bat datorren aldian. Lan hau Rodolfo Austriakoa artxidukeari eskaini zion eta, haren artzapezpiku-izendapena zela-eta obra amaitzeko ezarritako epea huts eginda, 1823an bukatu zuen; 1824ko maiatzaren 7an entzun zen lehen aldiz (*Kyrie*, *Credo*, *Agnus Dei* eta *Da nobis pacem* pasarteak bakarrik interpretatu ziren arren), *Bederatzigarren Sinfoniaren* estreinaldiko kontzertuan, eta harrera beroa jaso zuen.

Autobiografia espiritual musikal baten kutsua eta barne-iluntasun kementsu eta nahasizko sentimenduen isla dakartza obra honek bere baitan. Gogoeta erlijioso sutsuaren bultzadaz, fedearrekiko ideia propioa bat itxuratzen du. Horretarako, erretorikaren komunikazio-indarra baliatu, eta hari idazkera sinfoniko heldu bat gehituta bideratu zuen kredoa. Ahots-laukote bakarlari zein abesbatzari, bereziki konplexuak diren molde eta garapenak esleitu zizkion. Re maiorreko tonua darabil obraren hastapenean, eta, hortik aurrera, datorrenaren zirra eta tamaina irudikatzen ditu *Kyrie* atalean. *Gloria*, berriz, *fortissimo* batekin hasi, eta *Presto* adierazpena dakar segidan, ordura arte meza batean inoiz ez bezala. Horren antzera, *Credo* atala ere fuga-izae-ran biribiltzen du, abesbatzen errepertorio-ko pasarte zailenetakoari bide emanez. Bi adagio zinez eder dakartza *Sanctus*ak eta, bukatzeko, bere atsekabea aditzera ematen du Beethovenek *Agnus Dei* atalean, tonu minorreko momentu bakarrean.

Kezka moral eta erlijiosoen adierazle eta goresle den obra hau Musika Hamabostaldian azkenekoz entzun zenetik 20 urte baino gehiago igaro dira. Berebiziko sakontasun, aniztasun eta batasunez sar bedi bihotzetan.

Leire Retegi Fernandez*



Jérémie Rhorer

23/8

Ostirala / Viernes
20:00

Euskadiko Orkestra Orfeón Donostiarra

(José Antonio Sáinz Alfaro, abesbatza zuzendaria)

Jérémie Rhorer zuzendaria
Chen Reiss sopranoa
Victoria Karkacheva mezzosopranoa
Maximilian Schmitt tenorra
Hanno Müller-Brachmann baxua

Ludwig van Beethoven (1770-1827)

MISSA SOLEMNIS EN RE MAYOR

OP. 123 (82’)

Kyrie

Gloria

Credo

Sanctus

Benedictus

Agnus Dei

“Vom Herzen, Moege es wieder zum Herzen gehen”, “Desde el corazón, que vuelva al corazón” declara la grafía de la pluma de L. van Beethoven al inicio del manuscrito de la *Missa Solemnis*, con el propósito de dibujar una geografía de latidos religiosos en cada corazón. Los mimbres de las precedentes *Misa en Si menor* de Bach, y la *Gran Misa en Do Mayor* y el *Réquiem* de Mozart se mantenían presentes; y, para Beethoven, después de haber compuesto la *Misa en Do Mayor*, era la segunda inmersión en el género. Pero lo que escucharemos rebasó las dimensiones y los cánones de la liturgia en aliento de grandeza.

Al término de su trayecto vital y compositivo, ya completamente sordo, el compositor emprendió la escritura de la que sería la *Missa Solemnis Op.123*. En su honda y productiva última etapa lucían con más brillo los medios compositivos, entre los años 1818-1823 precisamente, coincidiendo en cronología con la *Novena Sinfonía*. Dedicada al archiduque Rodolfo de Austria y, sin haber cumplido la fecha de entrega que había fijado el nombramiento arzobispal de este último, la acabó en 1823 y se escuchó por primera vez el 7 de mayo de 1824 (aunque solo se interpretaron *Kyrie*, *Credo*, *Agnus Dei* y *Da nobis pacem*) en un concierto compartido con el debut de la *Novena* y que tuvo una calurosa acogida.

La obra se envuelve en pinceladas de una autobiografía espiritual musical y es reflejo de los sentimientos de una vigorosa y atormentada oscuridad interior. Plasma una idea propia de la fe arropada por una fogosa introspección religiosa. Con este fin se aferra a la fuerza comunicativa de la retórica, lo que, sumado a una madura escritura sinfónica, encamina el credo. Moldea tanto el cuarteto vocal solista como el coro en formas y desarrollos especialmente complejos. Desde el inicio en Re mayor, el *Kyrie* ya destapa la emoción y la envergadura de lo que seguirá. El *Gloria* tiene un comienzo en *fortissimo* y emplea la indicación de *Presto* por primera vez en una misa. Parecido a éste, el *Credo* también cuenta con un estilo fugado, en uno de los pasajes más difíciles del repertorio coral. El *Sanctus* trae consigo dos *Adagios* de destacada belleza y, para concluir, Beethoven transmite su amargura en el único momento en tono menor, el *Agnus Dei*.

Hace más de 20 años que este apogeo de inquietudes morales y religiosas se representó en la Quincena Musical. Que se adentre en los corazones, en auténtica profundidad, diversidad y unidad.

Leire Retegi Fernandez*

*Musika Hamabostaldiak finantzatutako *Musika Hitzetan* lankidetzatza proiektuan parte hartu duen Musikeneko ikaslea

*Alumna de Musikene participante en el proyecto de colaboración *Musika Hitzetan* (Música en palabras) financiado por la Quincena Musical